

HITZAREN ESKOLA / IRAKASLEEN FITXA

IRAKASLEA: Amets Aranguren
DATA: 2023ko irailaren 2tik 23ra
AZALPENA: <p>Xabier Gantzarainek hitzarekin zein harreman nuen galdetu eta segituan heldu zitzaidan burura beste galdera bat: hitzarekin ez dakit, baina zein harreman dut isiltasunarekin?</p> <p>Iaz entzun nion László Krasznahorkai idazle hungariarrari ez zela garai batean bezala idazteko gai, "gizakiak duen denbora guztia dedikatzen diolako egun bere existentzia demostratzeari" eta giro horrek ez ziola laguntzen (https://www.llegir.cat/2022/10/laszlo-krasznahorkai-lhome-necessita-dedicar-tot-el-seu-temps-a-demostrar-que-existeix/). Gainestimulazioa, <i>infoxikazioa</i> eta halakoekin lotu nuen esaldi hura eta isiltasunaren bueltan pentsatzen hasi nintzen. Jarrera aktiboa izan daiteke isiltzea? Zer da isiltasuna? Presentzia ala ausentzia? Botere ala ahulezia? Existitzen al da benetan?</p> <p>Horietatik tiraka leku diferentetatik begiratu diogu isiltasunari hiru saioetan. Ariketa eta hausnarketa proposamenak eginen ditut lehenengo bi saioetan eta hirugarrenaren lehen erdia (beste erdia irakasle gonbidatuaren esku geratzen baita) ikasleek haien lanak aurkezteko baliatuko dugu.</p> <p>Lehenengo bi saioetan proposaturiko ariketa eta hausnarketetatik abiatu eginen dituzte lanak ikasleek, bakarka edota taldeka. Edozer izan daiteke bukaerako lan hori: ariketa proposamenen bat, objektu bat, erakusketa bat, inpuina, gidoia, antzerkia, kantua... Idatziz, irudiz, ahoz... edozein formatuk balio du. Baldintza bakarra dago: izan dadila isiltasuna lanaren lehengai.</p> <p>Dena den "bukaerako produktu" horrek baino, interes gehiago du prozesuak berak, beraz, aurkeztuko den hori izan daiteke sinpleki egindako hausnarketa edo bidea konpartitzea.</p>

AURKIBIDEA (saioen eskema laburra)
<p>1. Saioa</p> <p>Gaiari sarrera egiteko baliatu genuen lehenengo saioa, beheago ikusiko dituzuen erreferentzia horiek denak baliatu eta horietatik abiatuta aritu ginen isiltasunaz.</p> <p>Zer da isiltasuna? Ausentzia ala presentzia? Boterea da ala ahulezia? Kontrola ala deskontrola? Zergatik da deserosoa? Existitzen al da benetan? Ekintza aktiboa izan al daiteke isiltzea?</p> <p>Zenbait autore entzun eta irakurri ondotik berriz heldu genien galderei. Gainera, esperimentu batekin hasi genuen saioa: ez genuen geure buruen aurkezpenik egin ordubete pasa arte, zenbaki bana esleitu nion ikasle bakoitzari eta isiltasunak ekar dezakeen hori gure azalean bizi ahal izan genuen hasieratik.</p> <p>Atsedenaldiaren ondotik, tarteak izan zuten bakoitzak bere lanari ekiteko eta saioa bukatzeko, erreferentzia batzuk konpartitu eta etxerako lan pixkat bidali nuen.</p> <p>2. Saioa</p> <p>Erreferentzia eta ariketa gehiago partekatu, horien inguruan mintzatu eta denbora utzi genuen berriz norberak bere lantxoak prestatzen segi zezan.</p>

3. Saioa

Bakarkako/taldeko lanen aurkezpenak egin genituen eta Ion Celestinoren esku utzi genuen klasearen bigarren partea.

+ Irakasle gonbidatuaren saioa

Amets Arangurenekin landutako gaiak eta bizipenak kolektiboki sintetizatzen saiatzea, lanabes gisa kopia erabilia.

Horretarako, batetik, herri kulturari buruzko ikuspegi orokor bat azaldu (musikaren arlotik hasi eta zabalduz). Bestetik koplaren lanabesari hurbilpena (egiturazkoa eta estetikoa), honi buruz idatzi eta esan denetik abiatu.

1. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala...).

Hitzaren Eskolan irakasle izateko proposamena jaso bezain pronto hasi nintzen aurreko edizioetako irakasleen memoriak irakurri/entzuten. Lehendabiziko edizioan lehenengo irakasle gisa aritu zen Gorka Arreseri irakurri (edo entzun) nion orduan bere paperak bazuela berezitasun bat, abantaila eta desabantaila aldi berean: berarekin hasiko zen Hitzaren Eskola, taldea ez zegoen oraindik osatua.

Niri ere lau irakasleetan lehen izatea tokatu zitzaidanez, taldearen osaera eza probestu nahi izan nuen eta hautaturiko gaiak, isiltasunak, ate asko uzten zizkidan irekita horrekin jolasteko. Gauzak horrela, hiru larunbatez (eta haiek gehiagoz gero) elkartuko ginenon aurkezpenak atzeratzea erabaki nuen, saioaren hasieratik edukitan sarturik eta sarrera luze bat eginez. Lehenengo orduan zehar, 1etik 17ra bitarteko zenbakiak besterik ez ginen izanen.

Bat

John Cageren 4:33 pieza entzun genuen (https://www.youtube.com/watch?v=TOgrWX5_dS4)
Eta horren bueltan aritu ginen hizketan. Ea ezagutzen zuten, ea zer iruditua zitzairen, ea zer uste zuten esan nahi zuela obra horrekin, ea zein esanen luketen dela piezaren lehengaia...

Bi

John Cage beraren eta Rahsaan Roland Kirken *Sound??* dokumentala jarri genuen ondotik (<https://m.facebook.com/deleuze.recombination/videos/716068855215736/>), honetan isiltasunaren existentziak aritzen da, batez ere, Cage.

Hiru

Barruan Gaude podcastean Xabier Erkizari eginiko elkarrizketaren sarrera entzun genuen gero (<https://open.spotify.com/episode/0IDd6XQWOIY8BI4M73eh79?si=tU2gbK3fRMmXpgTpnGqx4A>) , 2:33 minutura arte.

Lau

Erreferentzia horien guztien ondotik eta oraindik elkarrendako zenbakiak besterik ginela, hasi

ginen galdera batzuen inguruan: existitzen al da isiltasuna? Existitzen bada, zer da? Presentzia ala ausentzia? Boterea ala deskontrola? Indarra ala ahulezia? Eta existitzen ez bada, zergatik dauka izena? Zer da isiltzea, ekintza pasibo ala aktiboa? Ba al du entzutearekin loturarik?...

Bost

Isiltasunaren existentzia bera zalantzan jarri ondotik azaldu nizkien nire hiru saioetarako proposamenaren nondik norakoak. Isiltasunaren bueltako ariketa eta hausnarketa diferenteak planteatuko nituen eta horietatik abiatuz (edo ez) lantxo bat egin beharko zuten ikasleek azken saioan besteoi aurkezteko. Lana edonolakoa izan zitekeen: idatziko piezatxo bat, zerbait materiala, ahoz emanen zutena, entzutekoa, ikus-entzunezkoa, kideak ariketaren bat egiten jarriko zituena... Formatuari zegokionez, hortaz, ez zegoen baldintzarik, baina bai bat abiapunturako: isiltasunak behar zuen izan lehengai.

Sei

Sarrera luze honen ostean heldu ziren, azkenean, aurkezpenak. Baina ez nuen aurkezpen konbentzionalik nahi. Proposamena honakoa zen: aurkez zezala bakoitzak bere burua, kontuan hartuta zer esanen zuen, baina, aldi berean, zer isilduko zuen.

Zazpi

Aurkezpen errondaren ondotik beste galdera bat planteatu nien, nahi zuenak erantzun zezan: isildu edo isiltzen zuten hori momentu horretan botako balute, zer pasako litzatekeen.

Zortzi

Isiltasunari buruz hausnartu eta gure artean ere isiltasuna praktikara eraman ondotik, berriz heldu genien hasierako galdera batzuei: zer sentiarazi dizue zuen besteekiko isiltasunak eta besteen zuekikoak? Kontrola? Deskontrola? Boterea? Ahulezia? Zein alde on eta zein alde txar izan du gainontzekoak ezagutu gabe solasean aritzeak? Deserosoa izan al da? Noiz? Zergatik?

Behin aurkezpenak eginda, nolabaiteko hierarkia ezartzen da, norberak esan eta isildu duenaren arabera eta ondorioz norberak besteekiko konparaketaz bere burua kokatuko duen lekua topatuko du.

(Atsedena egin genuen hemen)

Bederatzi

Atsedenaldiaren ondotik, tartea utzi nien azken saioan aurkeztuko zuten horretan pentsatzen hasteko eta baita lanak taldean egin nahi izatekotan, taldeak osatzeko.

Hamar

Azken hamabost minutuak probestu genituen bakoitzak pentsatuak zituen ideiak pixkat konpartitzeko eta azken erreferentzia eta etxerako lan batzuk emateko. Batetik, Alain Corbinen *Historia del silencio* liburua aipatu eta hurrengo klaserako lehenengo bi kapituluak irakutzeko eskatu nien. Bestetik, bakoitzak bere isiltasun favoritoa ekarri zezan, argazki formatuan, ahoz kontatua, pinturan, bideoan... eta, bukatzeko, Jorge Drexlerren *Silencio* kantua jarri (<https://open.spotify.com/track/2gjB9GgSZFlj0YwltEACpQ>) eta kantua azaltzen duen podcastxoa gomendatu nien (<https://open.spotify.com/episode/5cYkdYOOqwEloNsqLkydit>) .

2. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak,

erabilitako materiala...).

Bat

Bigarren saio honekin hasteko, bakoitzak bere isiltasun favoritua aurkeztu zuen eta baita favoritua izateko arrazoia azaldu ere.

Bi

Pablo Messiezen *Nombrar es imposible* poema entzun genuen (<https://bohemia.cu/nombrar-es-imposible/>), Sílvia Pérez Cruzek musikatua (<https://open.spotify.com/track/175Y4GNGS1nvy44aeiaYG3>) eta entzun ondoren, zatitxo hau irakurri:

*Nombrar es imposible,
Y puede ser bello intentar lo imposible;
Pero cada vez que hablamos
Algo queda fuera de los nombres.
Cada palabra
Omite la única parte única de aquello que quiere decir.
Nombrar es olvidar...*

(edo nik halamoduz euskarara itzulia)

*Izendatzea ezinezkoa da,
Eta ederra izan daiteke ezinezkoa saiatzea;
Baina mintzo garen bakoitzean
Zerbait eratzen da hitzetatik at
Hitz bakoitzak
Esan nahi duen horren alderdi bereizgarri bakarra isiltzen du
Izendatzea ahaztea da...*

Hiru

Poematik abiatuta hasi gara hizketan. Izendatzea ahaztea dela dio Messiezek, baina, aldi berean, badakigu izena duena badela. Beraz, bi premisa horiek kontuan hartuta, hurrengo galdera planteatu nien: 2023ko Euskal Herri honetan izena duen zerk du soberan izena eta izenik ez duen zerk beharko luke?

Dinamoan bertan edota Azpeitin barna ibiltzeko tartea utzi eta bueltan galdera horren erantzunak ekarriko zituzten.

Lau

Ariketa egiten hasi aurretik, Borges-en *El Golem* poemaren (<https://www.poemas-del-alma.com/jorge-luis-borges-el-golem.htm>) zati hau ere irakurri genuen, bide beretik ari delako izendatzeaz:

Si (como afirma el griego en el Cratilo)

el nombre es arquetipo de la cosa

en las letras de 'rosa' está la rosa

y todo el Nilo en la palabra 'Nilo'.

(Atsedena egin genuen hemen)

Bost

Atsedendia-aren ondotik egin genuen ariketa eta txangotik bueltan, gure ustetan egun izena izan eta soberan duen hori eta izenik ez eta eduki beharko lukeen hori konpartitu genion elkarri.

Sei

Ikasle-eta-ko bik huts eginen zuten hurrengo (eta azken) saioan, beraz, haien lantxoa aurkeztu eta ariketa proposatu ziguten.

Zazpi

Tartea utzi genuen gainontzeko ikasleek euren lanekin segitzeko.

Zortzi

Bigarren saio hau bukatzen joateko beste erreferentzia bat aipatu nien: Xabier Erkiziak eta Maialen Lujanbiok egin duten aHUTSAK HARTUa proiektua (soinua/zarata/isiltasunarekin lotura duena) Bilboko Arte Ederren Museoan zela komentatu eta ikasle batek Arantxa Iturbek *Arratsean* saioan elkarrizketatu berri zituela gehitu zuen (<https://open.spotify.com/episode/1W5tiYZOFTTPk5BvxxtMG3>).

Bederatzi

Bukatzeko, bizpahiru kantu konpartitu nizkien. Mikel Laboaren *Gure hitzak (zer dio isiltzen denak isiltzen denean?)* <https://open.spotify.com/track/70xCc8JlpuTqDjXWdGclO2>, eta Peru Galbeteren *Hitzen hitzak* <https://open.spotify.com/track/0OXUt573vKZI6LCBlpqB5I> eta *Asmakizun bat* <https://open.spotify.com/track/3k3MqHPIWxZuSHGJnB3zJy>.

3. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala...).

Bat

Hirugarren saioaren lehenengo partea ikasleek prestaturiko aurkezpen/ariketak ikusi/entzun/egiteko erabili genituen.

(Atsedena egin genuen hemen)

Bi

Irakasle gonbidatuaren esku utzi genituen azken bi orduak. Hementxe Ion Celestinok emandako klasea osorik:

https://www.youtube.com/watch?v=qGEi7kfX9fU&ab_channel=KulturazKulturKooperatiba.

IRAKASLE GONBIDATUAREN SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala...).

Helburua: Amets Arangurenekin landutako gaiak eta bizipenak kolektiboki sintetizatzen saiatzea, lanabes gisa koplak erabilia.

Horretarako, batetik, herri kulturari buruzko ikuspegi orokor bat azaldu (musikaren arlotik hasi eta zabalduz). Bestetik koplaren lanabesari hurbilpena (egiturazkoa eta estetikoa), honi buruz idatzi eta esan denetik abiatu.

Idea nagusiak:

- **Sorkuntza oro kolektiboa da.** Herri kulturak erabilgarri dena bereganatu.
- **Modernitatean egile /jeinuaren lojika ezarri.** Salgai izateko ezinbesteko.
- Herri kulturak izan behar du **erreplikagarri**. Espektakularrak izan behar du **ez erreplikagarri, eksklusibo**.

“euskaletatik erroetatik/erroetara”

- Bilaketa honen beharra.. **ekologiagatik**
- **Garaikidea vs. tradizionala???**
- **Alienazio koloniala** atzean utzi beharraz
- **Euskal kantuaren** ezaugarri nagusi batzuek

doinuetatik hitzetara salto egin behar. Hemen lotzen da Ametsen gai nagusiarekin: isiltasuna.

- Elipsiaren estetika
- Begirada: barne isiltasun batetik sortzen da, obserbaziotik.

PROPOSAMENA:

[TRADIZIOTIK HARTU – MURGILDU / IKASI – BEHARRARI MOLDATU]

1) Azalpen orokorra

- irudi ordezkarria + irudi fokala

- atari ez lojiko sinbolikoa + ondorio tematikoa

- 2) natura / bigarren natura
- 3) kode partekatuak = komunitatea

Garai eta giro ezberdinetako hainbat adibideren bidez, aipatutako hau guztia aztertu ta ikusten saiatu.

ARIKETA:

- 1) Bakoitzak paper zati bat hartu. Bertan hitz gutxitan irudi fokal gisa erabil daitekeen zer edo zer adierazi, kode konpartitua izango dena.
- 2) Papera ondokoari pasa. Jasotako paper horretan den irudia 8+8 silabako bi lerrotara ekarri.
- 3) Papera ondokoari pasa. Jasotako paper horretan den irudia nola "bideratu" proposatu (hau da, irudi fokal horren esanahi edo lotura posibleak).
- 4) Papera ondokoari pasa. Jasotako paper horretako irudi fokala bere neurrira (10+8 silaba) eta errimara ekarri.

Hau da ariketatxoa. Kontuz ibiltzeko iradokizuna: etena/eten eza, loturak, kanpo semantikoa, aditz laguntzailea lastoa besterik ez da hemen, hiatorearen aurka gaude...

BIBLIOGRAFIA ETA ITURRIAK (erabilitako liburu, pelikula, artelan eta bestelako artefaktuak; egile eta iturri nagusien erreferentziak eta estekak)

LEHENENGO SAIOA

- John Cageren 4:33: https://www.youtube.com/watch?v=TOgrWX5_dS4
- John Cage beraren eta Rahsaan Roland Kirken *Sound??* dokumentala: <https://m.facebook.com/deleuze.recombination/videos/71606885215736/>.
- *Barruan Gaude* podcastean Xabier Erkiziari eginiko elkarrizketa: <https://open.spotify.com/episode/0lDd6XQWOIY8BI4M73eh79?si=tU2gbK3fRMmXpgTpnGqx4A>.
- Alain Corbinen *Historia del silencio*: <https://www.acantilado.es/catalogo/historia-del-silencio/>.
- Jorge Drexlerren *Silencio*: <https://open.spotify.com/track/2gjB9GgSZFlj0YwltEACpQ>.
- Jorge Drexlerren *Silencioren* azalpena: <https://open.spotify.com/episode/5cYkdYOOqwEloNsqLkydit>.

- László Krasznahorkairen aipua:
<https://www.llegir.cat/2022/10/laszlo-krasznahorkai-lhome-necessita-dedicar-tot-el-seu-temps-a-demostrar-que-existeix/>.

BIGARREN SAIOA

- Jorge Luis Borgesen *El Golem*:
<https://www.poemas-del-alma.com/jorge-luis-borges-el-golem.htm>.
- Maialen Lujanbio eta Xabier Erkiziari elkarrizketa *Arratsean*
<https://open.spotify.com/episode/1W5tiYZOFTTPk5BvxxtMG3>.
- Mikel Laboaren *Gure hitzak* <https://open.spotify.com/track/70xCc8JlpuTqDjXWdGclO2>.
- Pablo Messiezen *Nombrar es imposible*: <https://bohemia.cu/nombrar-es-imposible/>.
- Peru Galbeteren *Asmakizun bat* <https://open.spotify.com/track/3k3MqHPIWxZuSHGJnB3zJy>.
- Peru Galbeteren *Hitzen hitzak* <https://open.spotify.com/track/0OXUt573vKZI6LCBlpqB5l>.
- Sílvia Pérez Cruzen *Nombrar es imposible*:
<https://open.spotify.com/track/175Y4GNGS1nvy44aeiaYG3>

HIRUGARREN SAIOA

- Aita Donostiaren *La canción vasca* hitzaldia.
- Jose Arratibelen *Kontu zaarrak (Gentile ta artzaia - Ataunen jasotako ipuina)*.
- Jabier Kalzakortaren *Arratiako dantza koplak*.
- Jorge Oteizaren *Quousque Tandemeko Ejercicios espirituales en un tunel*.
- Luis Mujikaren *Euskal lirika tradizionala*.
- Marie Hirigoyen Bidarten *Le chant basque monodique (1897-1990) : analyse musicologique comparée des sources écrites et musicales*.
- Ngugi Wa Thiongoren *Decolonising the mind*.
- Marie Hirigoyen Bidarten *Le chant basque monodique (1897-1990) : analyse musicologique comparée des sources écrites et musicales*.